



8 BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Alarma Egoeraren 8. eguna. 2020ko martxoaren 23a, ostirala.

Osteguna hilak 22ko Kudeaketa / Ekintzak

BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Pandemiari aurre egiteko ezarritako konfinamendu sozialak ahuldu egin ditu lehendik zaugarriak ziren zenbait sektore, eta horiei ere arreta eman behar zaie. Horietako bat etxerik gabeko pertsonena da, eta horien arteko atzerritar jatorrikoekin lan egiten du Hiritarron Harrera-Sareak.

#Etxeangeratu# leloak dioena nekez bete zezaketen pertsona horiei arreta emateko, hainbat tresna jarri dira martxan. Horrek, konfinamenduak hiritar guztiei dakartzkien eragozpenen barruan, hobekuntza nabarmena ekarri die askori, aurreko bizileku-baldintzekin alderatuta. Eta hori posible izaten ari da gizarte-langileek eta boluntarioek haiekin egiten duten lan bikainari esker, haien arretan inplikaturik baitaude. Ez da soilik behar materialei erantzutea, laguntzea ere bada, eta entzutea. Lan hori ez da beti ezagutzen eta aitortzen. Hala ere, haiek gabe, gauzak oso bestela izango lirateke. Eta eginkizun horietan daude, ez bakarrik baliabide instituzionalak lan egiten duten langileek; hor daude, baita ere, Caritasek kudeatutako zentroak, aspalditik eta baita momentu honetan ere, horretan dihardutenak.

Horregatik, garrantzitsua da lan hau egiten den egitura-baldintzek aukera ematea lana bermekin eta arrakasta izateko aukerarekin egiteko. Gaur egun beharrezkoa da Atano pilotalekuaren masifikazioak sortzen dituen arazoak konpontzea. Oso ugariak ez diren giza kolektiboekin egin behar da kudeaketa, bai eta gutxieneko intimitate eta estankotasuna ahalbidetzen dituen azpiegiturarekin ere. Badakigu horretan saiatzen ari direla. Ubako aterpetxean agian. Espero dezagun lehenbailehen konpontzea. Eta, tematuta gaude honetan, garrantzitsua da behar diren adinako profesionalen kopurua kontratatzean eskasian ez ibiltzea.

Bestalde, salbuespenezko egoera horri esker, errealitate bat azalatu da, arlo honetan lanean ari garen erakundeok ondo ezagutzen duguna baina jendarte-kontzientzian ez dagoena. Honetaz ari gara: Donostialdeko eremuan soilik, 300 pertsona baino gehiago daude etxerik gabe. Ez dago kontzientzia sozialik, eta ez dago politika instituzionalik egoera latz hori arintzeko. Ez dago bizilekurik pertsona horientzat, kalean edo infraetxeetan edo fabrika abandonatuetan, edo etxe hutsetan bizi behar baitute... Ez dago jangela sozial bakar bat ere goseak egon ez daitezen; egoera hori arindu egin da neurri batean, Caritasek kudeatzen duen jantokia datorren abenduan itxiko baita. Atzerritarren Legea dela eta, ez dago pertsona horien zati handi batentzat lan egiteko aukerarik. Ez dago pertsona horiei laguntza eta arreta ematen dien profesional nahikorik ... Azken batean, ez dago egoera latz hori saihesteko baliabide nahikorik. Ezin da denborarik galdu jendarteko sektore ahulenen artean pertsona horiek guztiak berriro abandonatuta uztea saihestuko duten behar diren politikak abiarazteko.

Gaur egun, **Donostialdeaz ari garela**, honako hauek dira baliabideak eta pertsona artatuak: 161 Udalak kudeatuta (45 La Sirena, 29 Abegi Etxea, 87 Atano); 64 Caritasek kudeatuta (42 Hotzaldi, 22 Aterpe); kopuru horiei gehitu behar zaizkie abandonatutako fabriketan, hutsik dauden eraikinetan eta udal laguntza duten baina elikagaietarako baliabiderik ez duten logeletan bizi direnak, eta, baita elikagaiak behar dituzten familiak ere.



8 BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Horrek, guztira, **gutxienez 340** egiten ditu (azken zifra batzuk ez dira guztiz zehatzak). Horietatik, **emakumeen kopurua** ez da hamarrera iristen. Proportzio-alde izugarri handi horren arrazoa ez da gizonen baino egoera hobek dituztela, baizik eta **egoera are zailagoa dutela**, eta, kalean ahulak direnez, bizirauteko estrategiak hartu behar izaten dituztela, maiz kalte handiago baten truke. **Oso premiazkoa da arlo horretan esku hartzeko estrategiak lantzea**, oso zail eta neketsuak izan arren, guztiz beharrezkoak.

Elikagaiak: elikagaiak eskuratzeko aukerarik ez duten pertsonen kopuru handia, eta gero eta handiagoa, dago. Alde batetik, aurrez aipatutako zifren arabera, gaur egun udal-baliabideetan ez daudenak, badira **gutxienez 120** baina kontuan hartu behar da gure ezagutzeko ahalbideak murrizak direla. **Eta gero eta handiagoa** esaten dugu; izan ere, orain arteko lan prekarioen ondorioz gutxienean diru-sarrerekin bizi diren hainbat pertsona, diru sarrerarik gabe aurkitu baitira, **lan egiten zuten establezimenduak itxi ondoren. Ezin ditugu pertsona horiek gosea pasatzera kondenatuta utzi**. Eta **udala**, nahiz eta behin eta berriz eskatzen ari garen, **ez da agertzen**.

Komunikazioa. Erreportajerako ekarpena <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/actualidad/sociedad/2020/03/22/crisis-sanitaria-revela-donostialdea-hay/1020375.html>. Sareetan eta komunikabideei zabaldu zaie 7. buletina.

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Oraindik ere boluntarioak behar ditugu, elikagaiak behar dituztenak bizi diren auzoetan elikagaiak banatzeko. Atzo azaldu genuen zein garrantzitsua den dauden auzo berberetan egitea, orain arte bezala, SOS Arrazakeriaren bulegora joan beharrik izan ez dezaten. Lekualdatze hori gero eta arazotsuagoa izaten ari baita. **Horregatik da hain garrantzitsua auzo berean boluntarioak izatea, banaketaz ardura daitezen**. Zeregina erraza da. Gure Sareak badu elikagaiak behar dituzten pertsonen kokapena, eta elikagaiak lortzeaz eta entregatu beharreko poltsak prestatzeaz gu arduratzen gara. Boluntarioak dira, auzoko puntu batean (puntu egokiena zein den adostu beharko litzateke), ordutegi tarte txikian (15 min) eta adosten diren egunetan, poltsak pertsona horiei, izen eta abizenaz identifikatuak, ematen dizkietenak,. Auzo bakoitzean ez dira pertsona asko behar. Oso maneigarria da. Horrek aukera emango liguke gosea pasa dezaketen pertsonen elikagaiak hornitzea luzaroan bideragarri egiteko.

Ekarpen ekonomiko solidarioari dagokionez, atzoko diru-sarrerekin dagoeneko 120 pertsona dira zazpi egunetan 6.737 € sartu dituztenak. Hainbat ekarpen *Doble use Donostiatik* datoz https://www.instagram.com/p/B9T_-ftDO89/?igshid=1ttn7ywo59pvf

Ostalaritzaren laguntzaren arloan, Gandarias eta Pandoraren eguneroko ekarpena jarraitzen du.

Mugikorrek behar ditugu oraindik

Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Dohaintzak: CC ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABALDU, bidali zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.